



# URRETXU 2030

## EKINTZA PLANA

Plenorako dokumentua



Urretxuko udala



URRETXU 2030

# EKINTZA PLANA

2024 iraila

**Proiektuaren zuzendaritza**

Urretxuko Udala

[www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus)

**Laguntza teknikoa:** Isladak aholkularitza Koop. Elk.Txikia

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua

# AURKIBIDEA

- 1. SARRERA ----- 1 orria**
  
- 2. LABURBILDUZ... ----- 3 orria**
  
- 3. URRETXU 2030 EKINTZA PLANA ----- 4 orria**
  - IKUSPEGIA ----- 4 orria
  - HELMUGAK ----- 5 orria
  - EKINTZA PLANA----- 6 orria
  - AGINTE KOADROA ESTRATEGIKOA ----- 23 orria
  
- 4. PLANAREN JARRAIPENA ----- 25 orria**

# SARRERA

Dokumentu honetan **Urretxu 2030 Plana** egiteko egindako ibilbidea aurkezten da. Prozesu honek gako hauek izan ditu:



## OBJEKTIBITATEA

Hainbat iturritako datuetan, udalak aurretik Agenda 2030aren inguruan egindako lanaketan eta Udaleko hainbat plan eta estrategien azterketetan oinarrituta lan teknikoaren egina da.



## TEKNIKARI ETA POLITIKARIEN PARTE HARTZEA

Ekintza Plana, elkarlana eta erantzukizuna oinarri izanik burutu da. Lan objektiboa egiteaz gain, espazio desberdinak sortu dira udaleko teknikari zein politikarien iritziz eta ekarpenak jasotzeko eta Ekintza Planeari txertatzeko.

Prozesuaren esparruan, honako zeregin hauek gauzatu dira:

## EKARPEN TXOSTENA



## EKINTZA PLANA



## Udal teknikari eta politikarien proposamenak

# 1

## ABIAPUNTUA: EKARPEN TXOSTENA

Lanketa egiten hasi aurretik, udal teknikari zein politikariekin saio bat egin da 2030 Agenda eta GJH zer diren azalduz, eta gai honetan sentsibilizatuz, horrela Urretxu 2030 Agendaren diseinuan udal langile guztien inplikazioa lortuz.

Udalak **Garapen Jasangarrien Helburuei eta hauek osatzen dituzten helmugei egiten dien ekarpena** aztertu da, udalerrian indarrean dauden plan, estrategia eta ekimen nagusiak eta Euskadirako udalerrien eskumenekoak izan daitezkeen 95 helmugak oinarri hartuz.

Lanketa horretatik abiatuta, **Ekarpen Txostena** idatzi da, Urretxuk 2030 Agendari egindako ekarpena laburbiltzen duen dokumentu sintetikoa. Bertan GJH bakoitzeko fitxa bat osatu da, ondorengo informazioa azaltzen duena:

- GJH osatzen duten zein **helmugari** eragiten dion Urretxuko udalak
- GJH betetzeko azken urteetan udalak egindako **ekimen esanguratsuak**
- GJH-ekin lotutako **adierazleen bilakaera** modu grafikoan aurkezten da.

# 2

## URRETXU 2030 PLANA

Hasierako egoeraren azterketatik abiatuta, etorkizunean jarri da fokua eta **Urretxu 2030 Plana** definitu da, Udaleko teknikariekin eta politikariekin lankidetzan. Plan horrek gidatuko du garapen iraunkorraren arloko tokiko ekintza datozen urteetan. Plan horri oinarri emanez eta Planaren jarraipena egiteko ondorengoak ere definitu dira: Ikuspegia eta erronkak, Aginte Koadro Estrategikoa eta Planaren jarraipen sistema.

## IKUSPEGIA

2030ean, Urretxu herri bizigarria, bizia eta anitza da, pertsonen ongizatea oinarri duen herria eta guztion arteko interrelazioak eta kooperazioak sustatzen dituena; bai pertsonen artekoak, inor atzean utzi gabe; baita eragile kultural, ekonomiko, kiroltakoen eta bestelakoen artekoa ere. Aniztasunetik, sustraiak ondo errotutako herria da.

Bizitzeko erraza den herria da, oinarrizkoa den guztia bermatzen du. Lurzoruaren erabilera orekatua egiten du, natura balioan jarriz, baita herritarrentzako ezinbestekoak diren zerbitzuak eskainiz ere. Ekonomia eredu jasangarria dauka, ingurumenarekiko arduratsuak diren enpresak barneratzen dituena eta hiri-ekonomia sendoa daukana.

Udala, herria eta herritarrak sintonian daude, kohesioan daude. Ibilbide orri argi bat dago, planifikazio egokia duena eta etengabeko hobekuntza baten bila doana.



## 16+1 GJH

2030 Agendak zehazten dituen 16+1 Garapen Jasangarriko Helburu guztietan eragiten da Urretxu 2030 Planean identifikatutako ekintzen bidez (helburu batzuetan modu zuzenean, beste batzuetan zeharka).

## 58 HELMUGA

Planak Agenda 2030ek ezartzen dituen 169 Helmugetatik 58tan laguntzen du.

## JARRAIPENERAKO 42 ADIERAZLE

Aginte koadro estrategikoa osatzen dutenak.



## 6 ILDO ESTRATEGIKO

2030era begirako helburu nagusiak

## 21 PROGRAMA

Esku hartze helburu espezifikokoak

## 88 EKINTZA

Ekimen edo proiektu konkretuak

# URRETXU 2030 EKINTZA PLANA

Ekarpen txostenerako egin den egoeraren azterketari jarraipena emanez, ekintza plana ere modu partekatuan osatu da. Urretxuk, udalerrri bezala, 2030 urteari begira nolako herria izan behar duen hausnartu da eta herri hori lortzeko Urretxuk dituen erronkak identifikatu dira.

## IKUSPEGIA

### ZER NOLAKO URRETXU IMAJINATZEN DUGU 2030.URTEAN?

**2030ean, Urretxu herri bizigarria, bizia eta anitza da, pertsonen ongizatea oinarri duen herria eta guztion arteko interrelazioak eta kooperazioak sustatzen dituena; bai pertsonen artekoak, inor atzean utzi gabe; baita eragile kultural, ekonomiko, kirolekoen eta bestelakoen artekoa ere. Aniztasunetik, sustraiak ondo errotutako herria da.**

**Bizitzeko erraza den herria da, oinarrizkoa den guztia bermatzen du. Lurzoruaren erabilera orekatua egiten du, natura balioan jarriz, baita herritarrentzako ezinbestekoak diren zerbitzuak eskainiz ere. Ekonomia eredu jasangarria dauka, ingurumenarekiko arduratsuak diren enpresak barneratzen dituena eta hiri-ekonomia sendoa daukana.**

**Udala, herria eta herritarrak sintonian daude, kohesioan daude. Ibilbide orri argi bat dago, planifikazio egokia duena eta etengabeko hobekuntza baten bila doana.**

### ZEINTZUK DIRA ERRONKA NAGUSIAK?

2030 urteari begira izan nahi den Urretxu horretara iristeko herri bezala 6 erronka nagusi identifikatu dira:

#### 1. GIZARTE BERDINZALE ETA ENPATIKOA

Lanean jarraitu behar da zaintza ekosistema sendoa lortzeko eta bertako eragile guztiak ekosistemaren parte sentitzeko. Gainera, guztion ongizatearen eta osasun integralaren aldeko apustuarekin ere aurrera egitea beharrezkoa da, inor atzean utzi gabe.

Bestalde, pertsonen arteko desberdinkeriak atzean utzi eta pertsona guztiek aukera berdinak izateko lanean jardun behar da, adina, generoa, arraza edo jatorria edozein izanda ere, horrela herri bizia eta irekia lortuz. Herri bizi horren baitan, ezinbestekoa izango da, pertsonen aniztasuna oinarri hartuz, hizkuntzak eta kulturartekotasunak jorratzea, herriaren sustraiak ondo errotuz.

#### 2. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Gizarte osasuntsu bat izateko beharrezkoa da herriko kaleak eta espazioak pertsonen erlazioetarako pentsatuta egotea. Horregatik, mugikortasun arloan aldaketak ematea ezinbestekoa izango da Urretxun, oinezkoentzako eremuak handituz eta garraio moduetan ohiturak aldatuz. Guzti horrek gizarte eta inguru osasuntsuago bat lortzea ekarriko du.

### **3. LURZORU ERABILERA OREKATUA**

Aurreko erronkari guztiz lotuta, hiri eremua pertsonen beharrizan eta ongizatera planifikatuta egoteko lana burutu behar da, ingurumenaren ikuspuntua txertatuz eta etxebizitzetarako sarbidean eraginez. Gainera, eremu jakin batzuren eraberritzean lan egitea ezinbestekoa da Urretxu bezalako herri batean. Horrez gain, ondare kulturala eta natur ondarea balioan jartzearen beharra eta ingurune naturalaren zaintza egitearen beharra ere azpimarratzekoak dira.

### **4. KLIMA ALDAKETAREN AURREKO ERRESILIENTZIA**

Urretxu herri garbi, berde eta bizitzeko erraza izateko lanean jarraitu behar da, oinarrizko baliabideak bermatzeko eta horiek modu egokian kudeatzeko baliabideak ezarriz, eta horren bidez, klima aldaketaren aurrean erresilientzia lortuz. Horretarako, garrantzitsua izango da udalerrian uraren, hondakinen eta energiaren arloetan praktika jasangarriak errotzea.

### **5. GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIA**

Urretxu herri industrialia izanik, sektore hori sustatzen jarraitzeko beharra identifikatu da dagoeneko okupatuta dauden lurak berreskuratuz eta bertan industria enpresak kokatuz. Bestalde, hiri-ekonomia sendo baten aldeko apustua egitea ere beharrezkoa da. Sektore horietan, ezinbestekoa da ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetagarri eta berritzaileak diren enpresak sustatzea udalerriko pertsonentzako kalitatezko lanpostuak eskaini ditzaten.

### **6. UDAL GARDEN ETA KOLABORATIBOA**

Azkenik, Udalak argi dauka udal mailako bide orri argia izan behar duela, herri eta udal kohesionatu, orekatu eta kolaboratiboa izateko, eta ibilbide orri horren jarraipena eta etengabeko hobekuntzak egin behar dituela,; orregatik, ikuspegi horrekin lan egiten jarraitu beharko da. Horrez gain, udal departamentu sendoak lortzeko bidean lan egingo da, udal barneko zein herritarrekiko lankidetzak sustatuz.

## **HELMUGAK**

### **2030 AGENDA KO HELMUGAK**

Nazio Batuek onartutako 2030 Agenda globalak 169 Helmuga zehazten ditu, zeintzuek 2030 urtera begira lortu nahi diren helburu zehatzak jasotzen dituzten.

Urretxu 2030 Ekintza Planak horietatik 58 helmugei erantzuten die, hau da, helmuga horietan aurrera egiteko ekintzak jasotzen ditu.



# EKINTZA PLANA

## URRETXU 2030 PLANA (2024-2030)

Modu partekatuan osatu den URRETXU 2030 Planak 3 elementu nagusi ditu:

### LERRO ESTRATEGIKOA

Etorkizunera begira lortu nahi diren helburu nagusiak.

### PROGRAMA 1

Helburu nagusiak lortzeko helburu zehatz edo espezifikoak.

### PROGRAMA ...

Helburu nagusiak lortzeko helburu zehatz edo espezifikoak.

### Ekintza 1

Helburu lortzeko lagunduko duten ekimen konketuak.


### Ekintza ...

Helburu lortzeko lagunduko duten ekimen konketuak.

Urretxu 2030 Plana zenbakitan:

**16+1** GJH **6** ILDO ESTRATEGIKO **21** PROGRAMA **88** EKINTZA


Jarraian, Plana osatzen duten 88 ekintzen banaketa zehazten da, ekintza bakoitzak zuzenean eragiten duen Garapen Jasangarriko Helburuen arabera:



\* 14. Itsaspeko bizitza GJHri ez zaio eragiten

\* 17. Helburuak lortzeko aliantzak GJHari ez zaio zuzenean eragiten, helburu oso tranbertsala izanik zeharka eragiten zaio hainbat ekintzen bidez

Eta ekintzen banaketa bloke handien arabera honako hau da:



Ondoren, Urretxu 2030 Plana osatzen duten **ILDO ESTRATEGIKO** eta **PROGRAMAK** aurkezten dira:

| IE 1. PERTSONAK ETA ELKARBIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEN DITUEN GIZARTE BERTINZALE ETA ENPATIKOA   | IE 2. MUGIKORTASUN OHITUREN ALDAKETA GIZARTE ETA INGURU OSASUNTSUAGO BATEN ALDE  | IE 4. 3. LURZORUAREN OREKA MANTENTZEN DUEN HERRI JASANGARRIA                      | IE 4. KLIMA ALDAKETA ARINTZEKO BALIABIDEEN KONTSUMO ETA KUDEAKETA ARDURATSUA BURUTZEN DUEN GIZARTEA | 5. JASANGARRITASUNA TXERTATZEN DUEN ETA GUZTIENTZAKO ENPLEGUA SORTZEN DUEN EKONOMIA | 6. UDAL GARDENA, IREKIA ETA SENDOA   |
|---|--|---|---|---|--|
| P.1.1. Zaintza ekosistema sendo baten bidez, osasunaren ikuspegi integrala ongizatearen oinarri gisa bultzatzen duen Urretxu            | P.2.1 Oinezkoentzat eta bizikletentzat lehentasunezkoak diren espazio seguruak sortzen dituen herria, herri-jardueren hurbiltasuna areagotuz | P.3.1 Hiri eremua pertsonen beharretara eta ongizatera planifikatuta daukan Udala | P.4.1 Uraren kudeaketa integral arduratsua egiten duen udalerrria                                   | P.5.1 Urretxu ehundura ekonomiko anitza eta jasangarria duen herria                 | P.6.1 Urretxuko Udala erakunde garden, komunikatibo eta kolaboratiboa                                |
| P.1.2 Pertsonen bizi baldintzak eta osasun integrala hobetzeko ekimenak burutzen dituen herria  | P.2.2 Garraio motorizatu jasangarria sustatzen duen udalerrria, atmosferara egindako isuriak murriztuz                                       | P.3.2 Urretxu eraberritutako udalerrria   | P.4.2 Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa sustatzen duen udala                                     | P.5.2 Guztientzako kalitatezko enplegua lortzea helburu duen udalerrria             | P.6.2 Udal departamentu sendoak sortzen eta lankidetzaz eta koordinazioa hobetzen duen Udala         |
| P.1.3 Desberdintasunak murriztuz, pertsona guztiak aukera berdinak izan ditzaten lortzea helburu duen Urretxu                           | P.2.3 Aparkekuen berrantolaketa, espazio publikorako eremuak irabaziz  | P.3.3 Ondarea balioan jartzen duen Urretxu  | P.4.3 Klima aldaketaren eraginak murrizten dituen udalerrria trantsizio energetikoa ahalbidetuz     |   | P.6.3 Ingurumen kudeaketa bere jardueran txertatzen duen eta erosketa arduratsua burutzen duen Udala |
| P.1.4 Oparotasuneko elementu gisa, udalerrriko kolektibo desberdinak ikastearen garrantziaz jabetzeko ekimenak egiten dituen udalerrria |  | P.3.4 Ingurune naturala zaintzen duen komunitatea                                 |   |   |  |
| P.1.5 Parekidetasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzen duen udalerrria  |  |   |   |   |  |
| P.1.6 Hizkuntza eta kultura herritar guztien eskura jartzen duen herria   |  |   |   |   |  |

Hurrengo orrialdeetan, garapen iraunkorraren arloan datozen urteetan egingo diren ekintzak zehazten dira:

# IE 1.

PERTSONAK ETA ELKARBIZITZA  
ERDIGUNEAN JARTZEN DITUEN  
GIZARTE BERDINZALE ETA ENPATIKOA

# IE1. PERTSONAK ETA ELKARBIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEN DITUEN GIZARTE BERDINZALE ETA ENPATIKOA

## **P.1.1. Zaintza ekosistema sendo baten bidez, osasunaren ikuspegi integrala ongizatearen oinarri gisa bultzatzen duen Urretxu**

1.1.1 Zaintza ekosistemaren inplantazioa eta funtzionamendua gidatzea eta berau osatzen duten eragileak koordinatzea.

1.1.2 Arreta- eta bizitza-plana garatzea, pertsonen beharrak asetzeko laguntzak txertatuz.

1.1.3 Zaintza arloan lan egiten duten pertsonen ongizatea eta profesionaltasuna sendotzea (boluntariora barne).

1.1.4 Arlo soziosanitarioarekin lotutako ikaskuntza zabaltzea eta arlo horrekin lotutako merkatu-nitxoak sustatzea.

## **P.1.2 Pertsonen bizi baldintzak eta osasun integrala hobetzeko ekimenak burutzen dituen herria**

1.2.1 Bakardade egoeran dauden pertsonen arreta zerbitzuarekin jarraitzea.

1.2.2 Haur, nerabe eta gazteen osasun mentalari garrantzia ematea eta emozioen ezagutza eta kudeaketa sustatzea.

1.2.3 Pertsona helduen eta haur, nerabe eta gazteen ongizate mental eta emozionala lantzea.

## **P.1.3 Desberdintasunak murriztuz, pertsona guztiek aukera berdinak izan ditzaten lortzea helburu duen Urretxu**

1.3.1 Udalerri mailan dagoen aniztasuna ezagutzea eta beharrak identifikatzea.

1.3.2 Egungo errealitatera egokitutako Aniztasun eta bizikidetzaren plana diseinatzea eta aurrera eramatea.

1.3.3 Haur, nerabe eta gazteen ahotsa entzun eta beraien parte hartzea sustatzea, etorri berriak diren gazteengan arreta berezia jarritz.

**P.1.4 Oparotasuneko  
elementu gisa,  
udalerriko kolektibo  
desberdinak  
ikastearen  
garrantziaz  
jabetzeko ekimenak  
egiten dituen  
udalerria**

1.4.1 Udalerrira etorri berriak diren pertsoneri formakuntzaren garrantziaz jabetzeko sentsibilizazioa egitea.

1.4.2 Ikasketa zailtasunak dauzkaten ikasleei laguntza gehigarriak ematea ikasketak utzi ez ditzaten.

1.4.3 Formakuntza ez arautua sustatzea herritar ororen artean.

**P.1.5 Parekidetasuna  
eta emakumeen  
ahalduntzea  
sustatzen duen  
udalerria**

1.5.1 Urretxuko Berdintasun Plana diseinatzea eskualdeko planarekin lerrokatuz.

1.5.2 Urretxuko Berdintasun Plana garatzea.

1.5.3 Emakumeen partaidetza soziopolitikoaren sustatzea eta udalaren ekimenetan eta proiektuetan berau berrmatzea.

1.5.4 Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza sustatzea.

**P.1.6 Hizkuntza eta  
kultura herritar  
guztien eskura jartzen  
duen herria**

1.6.1 2024-2034 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartzea eta berau osatzen duten 6 ardatzak gauzatzea.

1.6.2 Soziolinguistika aldakorraren kontzeptua oinarri hartuz, euskararen erabilera eta elkarreragina lantzea eta euskara erakargarri egitea.

1.6.3 Udalak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalizazioan jardutea.

1.6.4 Udalerrian burutzen diren ekintza kulturei ikusgarritasuna ematea, kultur eragileekin lankidetzan.

1.6.5 Soziokulturalki etorkizuneko erronkak zeintzuk diren zehaztea eta horiek aurrera eramatea.

# IE 2.

MUGIKORTASUN OHITUREN ALDAKETA  
GIZARTE ETA INGURU  
OSASUNTSUAGO BATEN ALDE

# IE 2. MUGIKORTASUN OHITUREN ALDAKETA GIZARTE ETA INGURU OSASUNTSUAGO BATEN ALDE

---

## **P.2.1 Oinezkoentzat eta bizikletentzat lehentasunezkoak diren espazio seguruak sortzen dituen herria, herri-jardueren hurbiltasuna areagotuz**

- 2.1.1 Urretxuko Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana onartzea.
- 2.1.2 ILI (Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta) Ekobulebarra garatzea.
- 2.1.3 Eskola inguru atsegina eta bide seguruak ezartzea.
- 2.1.4 Ikastetxeekin bide heziketa eta segurtasuna programa berreskuratzea.
- 2.1.5 Garraio modu desberdinen arteko bizikidetza eta heziketa ahalbidetzea.
- 2.1.6 Irisgarritasun Plana aurrera eramatea eta beharrezkoa denean eguneratzea.
- 2.1.7 Herriko sarreretan eta irteeretan abiadura mantsotzeko elementuak ezartzea eta Mantxinporta proiektua aurrera eramatea.

## **P.2.2 Garraio motorizatu jasangarria sustatzen duen udalerria, atmosferara egindako isuriak murriztuz**

- 2.2.1 Autobus geltokien egokitzea, pertsona zaurgarrienen beharrei arreta berezia eskainiz.
- 2.2.2 ParteCar sistema aztertzea eta bideragarri izatekotan martxan jartzea.
- 2.2.3 Udal flota ingurumenaren ikuspegitik egokiagoa izan dadin berritze planaren kudeaketari jarraipena egitea.

## **P.2.3 Aparkalekuen berrantolaketa, espazio publikorako eremuak irabaziz**

- 2.3.1 Aparkalekuak berrantolatzea.
- 2.3.2 Aparkaleku estrategiaren sozializazioa burutzea.
- 2.3.3 Araututako Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzari jarraipena egitea eta dauden beharretara egokitzea.



IE 3.

LURZORUAREN OREKA MANTENTZEN  
DUEN HERRI JASANGARRIA

## IE 3. LURZORUAREN OREKA MANTENTZEN DUEN HERRI JASANGARRIA

---

### **P.3.1 Hiri eremua pertsonek beharretara eta ongizatera planifikatuta daukan Udala**

- 3.1.1 Urretxuko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra exekutatzeko.
- 3.1.2 Hirigintzaren arloko ekimenak burutzerakoan ingurumen irizpideak kontutan izatea.
- 3.1.3 Udal arauak bizigarritasun baldintzetara egokitzea.
- 3.1.4 Alokairuko etxebizitzaren gehikuntza bultzatzea.
- 3.1.5 Etxebizitza sarbidea errazten jarraitzea zaugarritasun egoeran dauden pertsonen.
- 3.1.6 Udal Larrialdi Plana modu sistematikoan berrikustea eta egokitu beharrezkoa den kasuan.
- 3.1.7 Zarata-mapa bat eta dagokion ekintza-plana egitea.

### **P.3.2 Urretxu eraberritutako udalerria**

- 3.2.1 Hirigune historikoa birgaitzeko prozesuari jarraipena ematea.
- 3.2.2 Urretxuko hego sarrerarako espaloia eta sareak berritzea.
- 3.2.3 Mundo Mejor eta Santa Barbara auzoen birgaitzea burutzea.
- 3.2.4 Hutsik dauden eraikin/pabiloiak kirol eta kultur arlorako instalakuntzetarako eraberritzea, eta dauden kirol eta kultur instalakuntzak beharra izatekotan egokitzea.

### **P.3.3 Ondarea balioan jartzen duen Urretxu**

- 3.3.1 Berriotxoako tximiniaren konponketa lanak egitea eta bere garrantzia ondare industrial moduan ezagutzera ematea.
- 3.3.2 Udalerriko zuhaitz handien egoeraren azterketa egitea eta hauek babestea.
- 3.3.3 Natur ondarearen bidezko sare berdea osatzea, herri guneko gunek berdeekin batera.

### **P.3.4 Ingurune naturala zaintzen duen komunitatea**

3.4.1 Irimoko biodibertsitatea hobetzeko plana aurrera eramatea.

3.4.2 Lursailen erosketa publikoarekin jarraitzea, basoen kudeaketa egokia bermatuz.

3.4.3 Ibai-ibilguen eta ibai ertzen berroneratzea sustatzea.

3.4.4 Espezie inbaditzaileen erradikazioarekin jarraitzea, beste udalerrri eta erakundeekin lankidetzan.

3.4.5 Sentsibilizazio eta informazio kanpainen bidez herritarrak inplikatzeko naturaren kontserbazioan.

# IE 4.

KLIMA ALDAKETA ARINTZEKO  
BALIABIDEEN KONTSUMO ETA  
KUDEAKETA ARDURATSUA BURUTZEN  
DUEN GIZARTEA

# IE 4. KLIMA ALDAKETA ARINTZEKO BALIABIDEEN KONTSUMO ETA KUDEAKETA ARDURATSUA BURUTZEN DUEN GIZARTEA

---

## **P.4.1 Uraren kudeaketa integral arduratsua egiten duen udalerrria**

4.1.1 Sakabanatutako baserrien eta etxebizitzetan uraren ziklo integrala lantzea eta egokitzea.

4.1.2 Sare bateratua banantzeko obrekin jarraitzea.

4.1.3 Baimendutako ur-emakiden zerrenda eguneratzea eta Urolako emaria gutxitzea eragiten duten ur-erazketen kontrol handiagoa egitea.

4.1.4 Urola ibaian egon daitezkeen isuriak aztertzea eta kontrolatzea.

## **P.4.2 Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa sustatzen duen udala**

4.2.1 Elikagai-hondakinak prebenitzeko jarduerak eta sentsibilizazioa egitea.

4.2.2 Herritarren artean berrerabilpena sustatzeko eta hondakinen gaikako bilketa hobetzeko ekimenak aurrera eramatea.

4.2.3 Hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko eskakizunak sartzeari jarduera-lizentziaren edo alde aurreko jakinarazpenaren araubideen bidez udal-izapideetan sailkatutako jarduerari.

4.2.4 Obra txikien hondakinen kontrolerako garapena sustatzea.

## **P.4.3 Klima aldaketaren eraginak murrizten dituen udalerrria trantsizio energetikoa ahalbidetuz**

4.3.1 Jarduketa energetikorako udal planeko ekintzak aurrera eramatea.

4.3.2 EKIOLA komunitate energetikoa bultzatzea.

4.3.3 Komunitate energetikoaren baitan sortu daitezkeen proiektuen inguruko plangintza egitea eta hauek aurrera eramatea.

4.3.4 Energia berriztagarrien instalazioak arautzeko ordenantza bat garatzea eta zabaltzea.

4.3.5 Udalerriko zaugarritasun energetikoaren azterketa egitea eta hori murrizteko ekintzak aurrera eramatea.

4.3.6 Urretxuko klima aldaketaren 2030 planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

# IE 5.

JASANGARRITASUNA TXERTATZEN  
DUEN ETA GUZTIENTZAKO ENPLEGUA  
SORTZEN DUEN EKONOMIA

# IE 5. JASANGARRITASUNA TXERTATZEN DUEN ETA GUZTIENTZAKO ENPLEGUA SORTZEN DUEN EKONOMIA

---

## **P.5.1 Urretxu ehundura ekonomiko anitza eta jasangarria duen herria**

5.1.1 Erabiltzen ez diren lurzoru artifizializatuak eta industrialak biziberritzen saiatzea, jarduera ekonomikoak hartzeko batez ere.

5.1.2 Kaminpe-Acelor Mittal eremuaren eraberritzea aurrera eramatea.

5.1.3 Ekonomia urbanoaren plana diseinatzea eta aurrera eramatea eragileekin elkarlanean.

5.1.4 Hurbileko eta sozialki justuak diren kontsumo-ereduak garatzeko proiektu baten beharraz hausnartzea.

5.1.5 Udalak egiten dituen ekimenen bidez bertako ekoizleei ikusgarritasuna ematea.

5.1.6 Gizartearekiko eta ingurumenarekiko errespetagarria eta berritzailea den enpresa eredu bat eraikitzen laguntzea.

## **P.5.2 Guztientzako kalitatezko enplegua lortzea helburu duen udalerria**

5.2.1 Langabezian dauden pertsonak lan merkatura sartzeko aukera izan dezaten tresnak eskaintzea.

5.2.2 Lan sorkuntza (ekintzaitza) sustatzen jarraitzea.

IE 6.

UDAL GARDENA, IREKIA ETA  
SENDOA



## IE 6. UDAL GARDENA, IREKIA ETA SENDOA

---

### **P.6.1 Urretxuko Udala erakunde garden, komunikatibo eta kolaboratiboa**

6.1.1 Udaleko gardentasun orria eta web orria hobetzea.

6.1.2 Web orria udaleko izapideak egiteko tresna eraginkorra izan dadin bermatzea.

6.1.3 Urretxu 2030 Planaren urteroko jarraipena egitea urteko aurrekontuekin bat eginez.

6.1.4 Egun dauden partaidetza mekanismoak sendotzea eta berriak martxan jartzea.

6.1.5 Etorkizuneko erronkak kontutan izanik ordenantzetako hobariak beharretara egokitzea edo osatzea.

### **P.6.2 Udal departamentu sendoak sortzen eta lankidetzaz eta koordinazioa hobetzen duen Udala**

6.2.1 Udaleko haur, nerabe eta gazteen arloa/departamentua indartzea eta honen zabalkundea egitea.

6.2.2 Udalean garapen ekonomikorako saila indartzea.

6.2.3 Udal langileen lanpostuak egonkortzeko neurriak hartzea.

6.2.4 Barne Kudeaketa Taldearen (BKT) berpiztea sustatzea, zeharkakotasunean oinarritutako lanerako kultura eta dinamika sortuz.

6.2.5 Sail bakoitzak urteroko lanen prozedurak lantzea eta konpartitzea denen arteko hobekuntzak bilatuz.

### **P.6.3 Ingurumen kudeaketa bere jardueran txertatzen duen eta erosketa arduratsua burutzen duen Udala**

6.3.1 EMAS udaleko sail guztietara zabaltzea.

6.3.2 Erosketa eta Kontratazio Publiko berdea ezartzea.

# AGINTE KOADRO ESTRATEGIKOA

## JARRAIPENERAKO ADIERAZLE SISTEMA

Urretxu 2030 Planaren helburua 2030 Agendak zehazten dituen helburuak lortu eta udalerrri jasangarriago bat lortzeko lan ildo nagusiak definitzea da.

**Aginte Koadro Estrategikoa** osatzen duten adierazleak planaren eraginkortasuna neurtzeko aproposak dira, urtero hauek kalkulatu eta esperotako eboluzioa ikusi eta hauen jarraipena egiteko aukera emango baitute.

Jarraian Agenda 2030ek zehazten dituen Garapen Jasangarrirako Helburuen egoera eta eboluzioaren jarraipena egiteko Urretxu 2030 Planarekin lotutako Aginte Koadro Estrategikoa zehazten da:



1. Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak.
2. Gizarte Larrialdietarako laguntzen onuradunak.



3. Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina.



4. Bizi-itxaropena (emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita).
5. Udalerriko ibilgailu-parkea.
6. Oinezkoen eta bizikleta bideen azalera.
7. Trafiko istripuen ondoriozko lesioen biktimak.



8. Gutxieneko bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituzten pertsonak.



9. Udal korporazioan dauden emakumeen ehunekoa.
10. Emakumeen batez besteko errenta.
11. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak.



12. Udalerriko ur eskari osoa.
13. Etxeko ur kontsumoa, biztanle eta eguneko.
14. Kontrolik gabeko ur kontsumoa.
15. Hondakin urak tratatzeko sistema egokiak dituzten eta saneamendu-sarera lotuta dauden udalerriko etxebizitzak.
16. Hondakin urak tratatzeko sistema egokiak dituzten, baina saneamendu-sarera lotuta ez dauden etxebizitzak.
17. Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa.



18. Energia elektrikoaren etxeko kontsumoa biztanle eta urteko.
19. Tokiko administrazioaren energia-kontsumo osoa.
20. Energia berriztagarrien ekoizpena herri mailan.



21. Langabezia-tasa (emakumezkoa eta gizonezkoak bereizita).
22. BPG biztanleko.



23. Enpresen sorrera. Establezimenduen saldo garbia.



24. Etxebizitza babestuen parkea.
25. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plaza kopurua.
26. Adineko pertsonen zuzendutako etxez-etxeko laguntza zerbitzua.
27. Mendekotasun-mailaren bat duten pertsonak.
28. Immigrazio-tasa.



29. Lurzoru artifizializatua.
30. Parke, lorategi eta hiri berdeguneek hartzen duten azalera.



31. Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera biztanle bakoitzeko.
32. Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketaren tasa.
33. Erosketa eta kontratazio publiko berdea: ingurumen-klausulak dituzten lizitazioen kopurua.



34. Udalerriko berotegi-efektuko gasen isuriak, biztanle eta urteko (industria eta lehen sektorea barne).
35. Udalaren berotegi-efektuko gasen isuriak, biztanle eta urteko.



36. Babes bereziko azalera, udalerraren azalera osoarekiko.
37. Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.
38. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen berreskurapena.



39. Herritarrek parte hartzeko Tokiko Agenda 2030 programaren aurrez-aurreko mekanismoen batzarrak.



40. Garapenerako nazioarteko laguntzetara zuzendutako udal aurrekontua.



41. Euskararen ezagutza.
42. Euskararen erabilera.

# PLANAREN JARRAIPENA

Urretxuko udalak udal barneko koordinazioa eta antolaketa sendoa dauka eta maila teknikoan elkarlanean aritzeko **Barne Kudeaketa Taldea (BKT)** dauka. Talde horren asmoa da, helburu konkretuak oinarri hartuta, pixkanaka, zeharkakotasunean oinarritutako lan dinamika eta kultura sortzea. Bertan parte hartzen dute batzar bakoitza osatzen duten udal sailletako teknikariek eta gobernu taldeko politikariek. Organo hau alkatetzatik lideratzen da.

Bestalde, **3 Batzar informatibo** (Antolaketa, Lurralde eta Herritarrak) ere badaude udalean. Bertan daude antolatuta udaleko sail guztiak. Bilera horiek izaera informatiboa dute, eta bertan parte hartzen dute sailletako arduradun teknikoek (BKT-n parte hartzen dutenak) eta politikariek (bai gobernu taldekoak baita oposiziokoak ere).




**Herritarrei begirako parte-hartzea** ere sustatu da Urretxun. Urretxuarren hitza era aktiboan entzuten da eta egindako ekarpenak kontuan hartzen dira udal erabakietan; hala, herritarren inplikazioa ere sustatuz. Udalerrian hainbat parte hartze kanal daude martxan, adin-talde eta publiko ezberdinei zuzendutakoak eta haien zuzenbidea egokiak.

Urretxu 2030 Plan honetan ezarritako helburuak lortzeko, beharrezkoa izango da pertsona guztien lankidetzeta eta konpromisoa, bai udal barruan, bai Urretxuko herritarren aldetik ere.

Hori dela eta, jarraipena egiteko, urtero kudeaketa eta jarraipena egingo da, eta emaitzak herritarrekin partekatuko dira.

Jarraipena egiteko, ondoren adierazten den urteko kudeaketa zikloa aurreikusten da:



Eredu horretatik abiatuta, eta gaur egun udalerrian dauden egiturak aprobetxatuz, planaren jarraipena modu partekatuan egingo da, herritarrekin eta udaleko teknikariekin lankidetzan:

- **UDALEKO TEKNIKARIAK:** Udaleko teknikarien ardura izango da planean jasotako ekintzak gauzatea, horri buruzko informazioa helaraztea eta aginte koadroko adierazleak kalkulatzeko beharrezko datuak ematea. Ingurumen teknikaria izango da, momentuz, planaren jarraipena eta adierazleen kalkulua egingo duen arduraduna, baina beti ere, BKT-ko gainontzeko teknikariekin elkarlanean.
- **BKT:** Ebaluazioaren emaitzak eta adierazleen eboluzioa aztertuko dituen taldea izango da. Lortutako emaitzetan oinarrituta, talde horrek hurrengo urterako lehentasun nagusien proposamen bat egingo du eta horiek udal aurrekontuetan sartuko ditu.

Beharrezkoa denean, indartu beharreko arloak identifikatuko ditu eta udal-aurrekontuetan sartu beharreko ekintza zehatzak proposatuko ditu.

Herritarren proposamenak ere landuko ditu talde honek.

- **BATZAR INFORMATIBOAK:** Batzar informatiboei ere aurkeztuko zaizkie ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak.
- **HERRITARRAK:** Herritarrei begira dauden kanal desberdinak aprobetxatuko dira. Urrian zehar, auzoz-auzoko bilerak antolatzen dira eta hauetan lanketa egingo da lortutako emaitzetan oinarrituta, herritarrek hurrengo urterako dituzten lehentasunak identifikatzeko. Bestelako ohiko kanalak ere erabiliko dira emaitzen berri emateko eta ekarpenak jasotzeko, hala nola, Whatspp taldea, web orria eta sare sozialak.
- **ORDEZKARI POLITIKOAK:** Ordezkarri politikoaren ardura da udal aurrekontuen azken lanketa eta onarpena, eta beraz, Urretxu 2030 Plana gauzatzeko zein ekimen gauzatu diren erabakiko duen organoa da.



AGENDA 2030  
UROLA GARAIA



**Urretxuko** udala

